

Laguntza-tresnak

Prozedurari laguntzeko dokumentu hauek eskaintzen dira:

• **Lanbide konpetentzien aitortzea:**

1. Eranskinak:

- Izena emateko, aholkuak emateko eta ebaluatzeko eskaera,
- Lanbide-kualifikazioetarako onartutako lanpostuak
- Lanbide-heziketako tituluak – Kualifikazioak
lanbide-arloen arabera – Profesionaltasun-ziurtagiriak

2. Dokumentuen ereduak: lanbide eta prestakuntza historia, ziurtagiriak

Hemen eskuragarri: <https://ivac-eei.eus/eu/konpetentzien-aitortzea/>

• **Hautagaiarentzako gidak**

Hemen eskura daitezke: <http://incual.mecd.es/manual-procedimiento>



LANBIDE
KONPETENTZIEN
AITORPENA ETA
ZIURTATZEA



ZURE
LAN-ESPERIENTZIA
ZIURTATU



Non informatu naiteke?

Informazio gehiago nahi izanez gero,
UGT-Euskadi-ra joan edo kontsultatu bere
webgunea

Bilbo: Colón de Larreategui 46 bis PK 48011
Tel.: 600 488 414

• Baduzu lan-esperientzia, baina ez duzu hori egiaztatzen duen ziurtagiririk?

• Zer egin behar da parte hartzeko?

• Zer baldintza bete behar ditut?



ZURE LAN-ESPERIENTZIA ZIURTATU



Aurkezpena

Uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak, martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatuak, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunen aitorpena ezartzen eta sostengatzen du.

Gaitasunak egiaztatzeko prozesuaren bidez, hautagaiak lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunen egiaztapen ofiziala eskuratzen du, kompetentziak ebaluatu ondoren.

2021eko martxoan araudia aldatu zen eta prozedura iraunkor bat ireki zen, autonomia-erkidego bakoitzean dagoen Lanbide Heziketako eskaintzan jasotako kompetentzia-atal guztiei buruzkoa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari lotuta.

Abantailak

- Estatuko lurralde osoan balio duen egiaztagiria ofizial bat lortzea.
- Profesionaltasun-ziurtagiri bat edo lanbide-heziketako titulu bat eskuratzeko akreditazioak lortzea, eta haien arteko korrespondentzia lortzea.
- Lanbide-gaitasunak osatuko edo handituko dituen banakako prestakuntza-plan bat proposatzea.
- Bizialdi osoko ikaskuntza eta lanbide-kualifikazioa areagotzea erraztea.



Prozesuan parte hartzeko baldintzak

1. Espainiar nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerritartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.

2. Izena emateko eskabidea aurkeztu den unean 18 urte beteak izatea, 1. mailako kualifikazioei dagozkien kompetentzia-atalen kasuan; eta 20 urte, 2. eta 3. mailakoen kasuan.

3. Egiaztatu nahi diren kompetentzia profesionalekin zerikusia duen lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:

1) Lan-esperientziaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 15 urteetan, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia justifikatzea eta, gutxienez, lan egindako 2.000 ordu. I. mailako kompetentzia-ataletarako, 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta, gutxienez, lan egindako 1.200 ordu.

2) Prestakuntzaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 10 urteetan, gutxienez 300 orduko prestakuntza justifikatzea. I. mailako kompetentzia-ataletarako, gutxienez 200 ordu eskatuko dira. Egiaztatu nahi den kompetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluek iraupen laburragoa dutenean, modulu horietan ezarritako ordu kopurua egiaztatu beharko da.

4. Balioetsiko diren kompetentzia profesionaleko atalek betekizun gehigarriak badituzte haien izaeragatik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak izatea.



Prozeduraren faseak



Orientazio eta informazioko atariko fasea



Izapidea Inskripzioa Hasierako eskabidea



Aholkularitza



Kompetentzia ebaluatzea



Kompetentzia egiaztatzea eta erregistratzea

